

«Itxita zeuden ate batzuk ireki egin dira eta hori aprobetxatu beharra dago»

Lasai topatu dugu Martxel Toledo Oiartzungo Elor-soro kiroldegiko kafetegian. Jubilatuta baina hamai-ka saltsatan sartuta oraindik, aspertzeko denborarik gabe. «Ez naiz jokatzailea, baina apustuzalea bai. Apustu egin beharko banu, 2026ko Munduko Txapelketan euskal selekzioa lehiatzen ikusiko dugula esango nuke», dio.

Nola dago Espainiako Kirol Lege berriaren prozesua?

Gaur bertan [abenduaren 22an egindako elkarrizketa da] onartu da Kongresuan. Buleti-nean argitaratzen denean hurrengo pausoa Kirol Kontseilu Goren delakora jotzea izango da, akordioa lortzeko. Hori Euskadiko Federazioari dago-kio. Behin akordio hori lortuta, nazioarteko federazioaren aurrean eskaera egin beharko da, bertan onartu behar dute-lako kide guztien artean kide berri baten onarpena. Pentsatu nahi dut urrats horiek ne-goziatuta daudela, kakotx artean, nazioarteko federazioko beste kideek trabarik jar ez de-zaten. Logikoa litzateke, kakotx artean hau ere, agian Espainiak ezezkoa defendatzea, baina beste guztiek baiezkoa ematen badute aurrera egingo luke onarpenak.

Frantziak ere ezezkoa eman-go duela pentsa daiteke, ezta?

Ez dakit. Biarritzeko Munduko Txapelketan ibili nintzen eta bertan zenbait federaziotako presidente izandakoekin topo egin nuen, Pepe Musi eta hauekin. Eta haiek aurreratu zidaten laster berri onak jaso-ko genituela. Beraz, argi dago zerbait badagoela landuta. Es-kaera egindakoa nik uste dut

oso federazio gutxik esan de-zaketela ezetz. Espainiak eta Frantziak, agian; baina Mexi-ko, Uruguai, Argentina, Vene-zuela, Estatu Batuak... horiek denak lehen behintzat alde zeuden. Munduko Koparen bat tokatuko da 2023an edo 2024an eta normalean hitzor-du horiek baliatzen ditu na-zioarteko federazioak bozke-tak egiteko. Eta hurrengo zalantza litzateke zer selekzio izango den: Euskadi? Nafarrik eta Iparraldekorik gabe?

Zer iruditzen zaizu zuri?

Gure barruko betiko arazoa da hori. Printzipioz Euskadiko fe-derazioak ateratzen dituen li-zentziak erkidegokoak dira: Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba. Nafarrek beraiena ateratzen dute hango federazioan eta Iparraldekoek federaziorik ere ez daukate, Iparraldeko Liga edo deitzen diotena besterik ez. Hori nola kudeatu? Kanpo-tik begiratuta nik ikusten du-dan aukera litzateke Euskadi-ko federazioari aukera ematea hala nahi duten nafar eta Ipa-rraldeko pilotarien lizentziak tramitatzeke. Zeren, noski, bai Iparraldean eta bai Nafarroan egongo da jendea aukera izan-da ere ez duena euskal selek-zioarekin jokatu nahi.

Federazio munduan mota guztietako adibideak ikusi izan ditugu. Nafarrekin bate-ra joan direnak, une batean aldatzea erabaki zutenak...

Herri kiroletako federazioan egiten da Euskal Herriko Txa-pelketa nafarrekin batera, ga-rai batean atletismoan ere bai... Federazio guztiek ez dute borondate berdina. Pilotan, adibidez, Euskadikoan, Gipuz-koakoan, Bizkaikoan eta Ara-bakoan argi ikusten da ofizial-tasunaren alde egiteko prest

daudela. Nafarroakoan, egia esan, ez dakit. Azkenean fede-razioko presidentea aukera-tzen dute pilotariek, epaileek eta teknikariek, eta hor egin beharko litzateke lana jendea euskal selekzioaren alde egite-ra animatzeko.

Legearen aldaketa hau albiste ona da, zure ustez?

Bai, bai, zalantzarik gabe. Ho-nek ate batzuk irekitzen ditu eta ate horiek aprobetxatu egin behar dira. Ate horiek be-ti itxita egon dira, politikoki ez zitzaielako interesatzen. Guk beti defendatu izan dugu arazoa politikoa dela eta orain argi ikusi da. Eta negoziazio hori egin dutenez, aprobetxa-tu beharra daukagu. Nik esan-go nuke urrats txiki bat dela. Ez naiz gai esateko kuantitati-boki edo kualitatiboki zenba-terainokoa den, baina urratsa dela bai. Eta aprobetxatu beharra dago denborarik gal-du gabe, maiatzean Espainian hauteskundeak izango direla-ko eta orain batzuek lege hori onartu duten bezala besteek atzera egin dezaketelako.


Hala ere, argi geratu da eus-kal selekzioak onartzeko az-ken hitza nazioarteko federa-zioek dutela.

Argi izan behar dugu nazioar-teko federazioak elkarte pribatuak direla, hemengo edozein txoko edo elkarte gastronomi-ko bezala. Horrelako eskaera bat onartu behar dutenak baz-kideak dira, zuk ezin duzu hor sartu bazkideek ezezkoa ema-ten badute. Kasu honetan, Na-zioarteko Pilota Federazioan ez dakit zehazki zenbat kide dauden sartuta (33 dira web-gunearen arabera). Suposa-tzen da, Espainia eta Frantzia kenduta, euskal selekzioa onartzearen aurka ez dagoela

MARTXEL TOLEDO

EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO MILITANTEA

Pilota eta euskal selekzioen aldeko borroka izan dira Martxel Toledoren (Oiartzun, 1951) bizitzako ardatzetako bi. Espainiako Kirol Lege berriak atea ireki diezaioke ofizialtasunari pilotan.



Jon URBE | FOKU

inor. Teorian, eta negoziatuta baldin badago, ez litzateke arazorik egon beharko, baina ikusiko da. Gauzak egun batetik bestera aldatzen dira askotan.

Pilotariekin agerraldiak ere egin zenituzten.

Aurten Munduko Txapelketa Biarritzen jokatzen zela-eta, zerbait egitea pentsatu genuen. Nolabait presioa egin nahi genuen, ez delako logikoa 2022. urtean, 'euskal pilota' izena duen kirol batean, etxean jokatzen den lehiaketa batean, Espainia eta Frantziarekin jokatzea beharra. Hortik abiatu ginen eta planteatu genuen bi agerraldi egitea: bata Durangon eta bestea Biarritzen. Durangoko agerraldian jende asko egon zen, federazioako presidente ohiak eta beste hainbat aurpegi ezagun. Aldarri ozen eta indartsua izan zen. Eta gero, Munduko Txapelketan beste agerraldi bat egin genuen. Ikusten dena da pilotariak, batez ere Iparraldean, kontzientziatuta daudela. Badaude kasuak aurten bertan Munduko Txapelketa jokatzeari uko egin diotenak.

Zer irakurketa egiten duzu Lakuako Gobernuak nazioarteko federazioen aurrean eskaera formalak egiteko martxan jarritako bideari buruz?

Alde batetik, hauteskunde garaian EAJk beti jotzen duela euskal selekzioaren inguruan dagoen saltsa hori bere aldera eramane nahi izatera. Eta bestetik, kasu konkretu batzuetan egoera nahiko eutsiezina dela; euskal pilotaren adibidea aipatuko nuke berriz. Beraz, urrats positibotzat hartzen ditut, gainera horrela delako: federazioei beraiei tokatzen zaie eskaera egitea. Baina egia da kutsu politikoa badagoela, fe-

derazio asko beraiek kontrolatzen dituztelako, futboletik hasita. Gehituko nuke borondatea behar dela, baina ez erdibidekoa, baizik eta zintzoa.

Urte asko izan ziren ESAITekin lehen lerroan. Zer oroitzapen dituzu?

Zoragarriak. Askotan hitz egiten ziguten hura guretzako lana balitz bezala, eta ez zen horrela. Guk gustura egiten genuen zerbait zen. Guretzat Bilbon 30.000 pertsona biltzea Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko partidaren egunean... sekulakoa zen. Egin genituen harremanak, kirolariekin tratua, jendeak erakusten zuen inplikazioa... Giroa bizi egiten zen eta niretzat ohore bat da bertan egon izana. 17 bat urte izan ziren ESAITekin eta bizipenak izugarriak izan ziren. Egia da batzuetan estresa sortzen zuela, baina oso pozik. Pena apur batekin amaitu genuen. Pentsatzen genuen atzetik etorriko zela jendea jarraipena emango ziona. Eta badago, baina beste modu batera. Apur bat kezkatzen nau egoerak.

Ofizialtasunaren aldeko jarrerara aldatu da, edo garaiak dira desberdinak?

Nik uste dut jarrera apaldu egin dela, zalantzarik gabe. Eta gizartea ere aldatzen doa. Biak batera doaz, segur aski. Baina uste dut talde bat egoteak, buru-belarri horretan sartuta, gizartetik apur bat tiraka ibiliko dena, horrek ere izango duela eragina. Kanpotik hitz egitea erraza da eta ez diot inori kritikarik egingo, bakoitzak ahal duena egiten du, baina esango nuke guztion errua izan dela. Hasteko, gurea: agian ez genuen utzi behar hain azkar, transmisioa sendotu gabe.